



**EBAZPENA, 2023ko ekainaren 5koa, Hezkuntza Saileko Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, zeinaren bidez argitara ematen baitira merezimenduen behin betiko puntuazioak, zeinen baremazioa Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateei baitagokie, Bigarren Hezkuntzako irakasleen, Hizkuntza Eskola Ofizialetako irakasleen, Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen, Arte Plastikoetako eta Diseinuko irakasleen, Maisu-maistren, desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen eta Lanbide Heziketako sektore berezietako irakasle espezialisten kidegoetan iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuan (Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitua).**

Hezkuntza sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen 6.4 oinarrian ezarritakoarekin bat etorriz, Langileriaren Kudeaketako zuzendariaren 2023ko maiatzaren 11ko Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren izangaiek lortutako behin-behineko puntuazioak, Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateek barematu beharreko merezimenduengatik. Agindu horien bidez, iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko ezohiko prozesurako deialdia egin zen kidego hauetan: Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan, Hizkuntza Eskola Ofizialetan, Musika eta Arte Eszenikoetan, Arte Plastiko eta Diseinuan, Maisu-maistren kidegoan, desagertzeaz dagoen Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoan eta Lanbide Heziketako Sektore Berezietako irakasle espezialisten kidegoan.

Behin-behineko puntuazio horien aurka hautagaiek aurkeztutako erreklamazioak ebatzi dira eta, era berean, zenbait kasutan antzemandako akatsak zuzendu dira. Azaldutako guztiaren ondorioz, behin-behinean emandako puntuazioan aldaketak egin behar izan dira.

Beraz,

## EBAZTEN DUT

**Lehenengoa.**- Argitara ematea merezimenduen behin betiko puntuazioak, zeinen baremazioa Langileak Kudeatzeko Zuzendaritza Unitateei baitagokie (I. eranskinen I. eta II. atalak eta III.1 azpiatala), Hezkuntzako sailburuaren 2022ko irailaren 22ko eta azaroaren 30eko Aginduen bidez deitutako iraupen luzeko aldi baterako enplegua egonkortzeko salbuespeneko prozesuan.

**Bigarrena.**- Espezialitate guztietako izangaiek meritu horiengatik lortutako puntuazioen behin betiko zerrenda hemen argitaratuko da:

### LHko sektore berezietako irakasle espezialistentzat

[### Gainerako kidegoetarako](https://hezigunea.euskadi.eus/(«Erabiltzailea (NAN/AIZ )» eta «Pasahitza» sartuz) - «Arlo pertsonala» - «Izapideak langileekin» - «Administrazio-izapideak» - «EPE 2022. Irakasleak. Egonkortzeko salbuespeneko prozesua-LHko sektore berezietako irakasle espezialistak - «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» - adierazi kidegoa eta espezialitatea - «Emaitzak» - «Lehiaketa-fasea: partziala».</a></p></div><div data-bbox=)



**Hirugarrena.**- Behin betiko puntuazioaren aurka ezin izango da errekurtsorik jarri, eta interesdunek, hala badagokio, gora jotzeko errekurtsua aurkeztu beharko dute deialdiko 7. oinarrian aurreikusitako izangai hautatuen behin betiko zerrendaren aurka.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 5a

LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIA

BLANCA MARÍA GUERRERO OCEJO